

Ikasturte amaierako dantza poteoa Orbeldirekin

Antolatzailea: Orbeldi Dantza taldea.
Gerturatu zaitze dantzara Orbeldiko helduen taldeekin batera.
Kalejiran, plaza dantzak egingo ditugu elkarrekin dantzatzeko.



EKAINAK 19-24

San Juan jaiak Kalezarren

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



EKAINAK 19, OSTIRALA

17:00 Buruhandiak.
18:00 Txupinazioa eta jaien hasiera.
Ondoren, auzotarren arteko herri kirolak.
20:00 Auzo afaria.
00:00 Kontzertuak: *Oilar Beltzak + Ganibet + Xsakara.*

EKAINAK 20, LARUNBATA

11:00-13:00 *Zirkuola* zirku-tailerra (beharrezkoa izango da aurretik izena ematea usurbilkultura.eus/en)
16:00 Musa (izena ematea 15:30ean hasiko da)
Auzoko plazan, *Gorritiren Showa.*
18:00 Herriko dantzariak.
Ondoren, erraldoi eta buruhandiak Lauburu konpartsaren eskutik.
00:00 Kontzertuak: *Bide Batez + DJ Tintz.*

EKAINAK 21, IGANDEA

10:30 Umeen krosa (izen ematea 10:00etan hasiko da)
11:30 Jolasak Ondoren, buruhandiak.
14:00 Umeen bazkaria: janaria norberak etxetik ekarrita, edaria eta postrea Jai Batzordearen kontu.
16:00 Tailerrak.
18:30 Txokolatada. Ondoren, buruhandiak.
19:30-21:00 *DJ Gorka Mendi.*

EKAINAK 23, ASTEARTEA (SAN JUAN BEZPERA)

15:00 San Juan eskearen irteera.
22:00 San Juan sua.
Ondoren, eskearen jarraipena.

EKAINAK 24, ASTEAZKENA (SAN JUAN EGUNA)

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, toka txapelketa.
16:30 Buruhandiak.
18:00 Sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik, *Ostolaza eta Larrañaga* trikitaliariek girotuta.

IKASTAROAK

UEU-JAKIN JARDUNALDIA USURBILEN

Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak

Antolatzaileak: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Jakin eta Usurbilgo Udala.

Noiz: Ekainak 18 eta 19

Non: Artzabal egoitzan

Ordutegia: Osteguna- 9:00-17:30 / Ostirala: 9:30-13:30

Prezioa: 12 €

Izen ematea: Ekainaren 16a baino lehenago

Ordu kopurua: 15

Matrikulazioa eta informazio gehiago: ueu.eus atarian.

Gaur-gaurko kezka zaharra da euskararen eta euskaldunen adierazkortasunari buruzkoa. Beterako apustu berria, hizkuntza lantzekoa; hasi plazara jalgitzetik eta noranahiko bihurtzera. Apustu hori lur ezegonkorrean egin izan da, ordea, biziera osoa euskaraz ematea naturala ez beste gutzita dela. Normalizatu gabeko eremuetan, unibertsalizatu gabeko euskalduntze bideetan. Haize- kontra.

Egoera horrek mihia eta ideiak zorroztea eskatzen du, eta horretarako da Jardunaldia. Pentsatzeko, gaur egungo Euskal Herriaren luze-zabalean eta kulturaren koadrante guztietan, zeintzuk diren euskara adierazkorra(k) lantzeko apustuak norabideak: nola probestu hortik eta hemendik –tradiziotik bezala randomkiro sortutako lagunarteetatik edo ahalduntze linguistiko-politikoetatik– jasotzea baliabideak eta esperientziak; nola lortu hiztunak baliabide horietan trebatzeko kontzientziak piztea eta bideak eskaintzea; eta nola gaurkotu eredu horiek guztiak sozializatuko dizkigun erresonantzia kutxa eraginkor bat.



ERAKUSKETAK

BUZTIN IKASTAROAREN AMAIERAKO LANEN ERAKUSKETA

Noiz: 1etik-7ra.

Non: Sutegiko erakustaretoan.

Antolatzailea: Buztinzulo elkarteak.



UFT-50 URTE ERAKUSKETA


Noiz: 12tik-28ra.

Ordutegia: 18:00-20:00

Non: Sutegiko erakustaretoan.

Antolatzailea: Usurbil Futbol taldea

Izan gintezke ni, zu, hura edo bese edozein, baina UFK-ko egiten gaituena elkarri eustea da.



ZIRIBORRO TAILERREKO IKASLEEN PINTURA ETA ESKULANAK

Antolatzailea: Einean Guraso eskola

Noiz: Uztailak 1etik-5era

Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

Non: Sutegiko erakustaretoan.



DEIALDIAK

DIRULAGUNTZAK

Ekainean argitaratuko dira bi dirulaguntza deialdi hauek: euskara ikasi duten ikasleentzako dirulaguntzak eta aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituztenentzakoak. Eskaearak aurkezteko: ekainaren 23an hasi eta uztailaren 7ra bitartean. Informazioa eskuratzeko: 943 371999 edo euskara@usurbil.eus

UDAJOLASEKO BILERA

Ekainaren 23an, asteartean, Sutegin. 17:00etan Udajolasi buruzko bilera. Uztailaren 6tik 30era, astelehenetik ostiralera (9:30-13:30) izango den Udajolasi aisialdi ekimenari buruzko argibideak jasotzeko guraso bilera.

USURBIL MUSEO IREKIA BISITA GIDATUAK

- Ekainak 6, larunbata**
Museo Irekia eta Salbatore Eliza 11:00 Sutegin.
- Ekainak 7, igandea**
Gerraren Memoria Ibilbidea Gaztelaniaz 10:30 Mikel Laboa Plazan.
- Ekainak 20, larunbata**
Salbatore Elizaren Ondarea eta Organo Erakustaldia. 11:00 Salbatore Elizan
- Ekainak 24, asteazkena**
Zero Zabor 10:00 Udaletxean
- Ekainak 26, ostirala**
Zaintzaren Usurbil 10:00 Udaletxean

Sarrerak: <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>
Telefonoa: 747 485140 · turismoa@650usurbilbizi.eus



KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK

Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi.

Ekainak 1-9 09:00-11:00 (14 ordu)

WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean.

Ekainak 10-12 09:00-11:00 (6 ordu)

Argazkiei ukituak eman zure smartphonearekin.

Ekainak 15-16 09:00-11:00 (4 ordu)

Google aplikazioak zure smartphonean.

Ekainak 17-29 09:00-11:00 (18 ordu)

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabalda.

BakQ ziurtagiria.

Ekainak 30 09:00-11:00 (2 ordu)

Ekainean Kzguna: Goizez 09:00-13:00

Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzguna.net · www.kzguna.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 09:30-14:00	1	2	3	4	5	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	8	9	10	11	12	●	●
Itxita	15	16	17	18	19	●	●
Goizez	22	●	●	●	●	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua



Uztailaren eta abuztuaren ez da kultur agendarik argitaratuko.

Iraileko kultur agendarako dituzuen proposamenak uztailaren 17a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera bidali.



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbilkultura.eus



usurbilkultura.eus
Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko

USURBIL KULTURA 2026ko ekaina

	Astelehena 16:00 Udal liburutegian	USURBILGO IRAKURLE GAZTEEN TOPAKETA	1
	Asteartea 18:30 Udal liburutegian	SOLASALDIA, KARMELE MITXELENAREN "ZORIONA, EDO ANTZEKO ZERBAIT"	2
	Asteazkena 18:00 Txiribogan	ETUMETA IV. LITERATUR LEHIAKETAREN SARI BANAKETA	3
	Larunbata Egun osoko jaia	UDARREGI IKASTOLAREN EGUNA	6
	Igandea 12:00-14:00 Dema plazan	KULTUR AZOKA ETA ARROBITXULOREN AURKEZPENA	7
	Asteartea 19:00 Potxoenean	ELKAR LAGUNTZA: BURU OSASUNAREN GILTZARRI HITZALDIA	9
	Asteazkena 18:30 Sutegin	ZUMARTE-TXIKI ETA KANTU TEKNIKAKO IKASLE GAZTEEN KONZERTUA	10
	Osteguna 16:45 Zubietako plazan	UDABERRI FESTA ZUBIETAN: ALTXOLARREN BILA GINKANA ETA APAR FESTA	11
	Osteguna 18:00 Sutegin	ZUZENEKO PODCASTA: "HERIOTZAREN AURREAN"	11
	Ostirala 16:45 Zubietako plazan	UDABERRI FESTA ZUBIETAN: HAURREN FUNKY-A ETA ANTZERKI EMANALDIA	12
	Ostirala 18:00 Zumarteko plazatxoan	MUSIKA ESKOLAKO TALDE INSTRUMENTAL TXIKIEN KONZERTUA	12
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa Plazan	IKASTURTEKO AZKEN KANTU-JIRA, AMAIA ZUBIRIAREN INGURUAN	13
	Larunbata 18:00 Sutegin	ANTZERKIA: "QUIEN HA MATADO A VERÓNICA?"	13
	Larunbata 18:30 Frontoian	TALDE INSTRUMENTALEN KONZERTUA	13
	Igandea 09:00 Frontoitik	VI UXUE TRAIL, LASTERKETA SOLIDARIOA	14
	Igandea 10:00 Aginagako Eliza Zaharrean	EGURREZKO ONTZIETAN ONDUTAKO SAGARDOEN VII. TXAPELKETA	14
	Igandea 12:00 Artzabaldik	ZUMARTE ETA ALTSASUKO SAXO TALDEEN KALEJIRA	14
	Igandea 17:00 Artzabalen	HIL ARTE BIZI! JAIJA	14
	Asteartea 18:30 Sutegin	LIBURU AURKEZPENA: ZUHAITZAK ETA ARBOLAK EUSKAL HERRIAN	16
	Asteazkena 18:30 Sutegin	ZUMARTE GAZTE ABESBATZA ETA KANTU TEKNIKAKO IKASLEEN KONZERTUA	17
	Astelehena 19:00 Mikel Laboa plazan	SANTIXABEL JAIEN EGITARAUAREN AURKEZPENA	17
	Osteguna 17:30 Zumartetik	MUSIKA TXOKOA, MUSIKA MINTZAIRA ETA INSTRUMENTUETAKO IKASLEEKIN KALEJIRA	18
	Osteguna 18:30 Mikel Laboa plazatik	IKASTURTE AMAIERA ORBELDIREKIN	18
	Ostirala- Asteleazkena Kalezarren	"SAN JUAN" JAIK	19-24
	Ostirala 00:00 Kalezarren	"SAN JUAN" JAIK. KONZERTUAK: OILAR BELTZAK, GANIBET ETA XSAKARA.	19
	Larunbata 00:00 Kalezarren	"SAN JUAN" JAIK. KONZERTUAK: BIDE BATEZ + DJ TINTZ	20
	Igandea 19:30 Kalezarren	"SAN JUAN" JAIK. DJ GORKAMENDI	21
	Asteartea 22:00 Santuenean	SAN JUAN SUA SANTUENEAN	23
	Ostirala 19:00 Sutegi aurrean	BIZI DANTZAN! DANTZA GARAIKIDE EMANALDIA	26
	Asteazkena-Igandea	SANTIXABEL JAIK	Uztailak 1-5

USURBIL

Kultura



EKAINAK 13

Kantu-jira
Amaia Zubiriaren abestiekin



EKAINAK 7

Kultur azoka eta
Arrobitxuloren aurkezpena

San Juan Sua

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarteak · **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.
Pasta banaketa.
22:00 Sua piztea.

Bizi dantzan!

Antolatzailea: Usurbilgo dantza garaikide taldea.
Mugimendua, sormena eta inprobisazioa gorputzen dituen dantza pieza. Usurbilgo Dantzalab, dantza laborategiko ikasleek eskainia.



EKINTZAK



LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia.

EKAINAK 1, ASTELEHENA

Usurbilgo irakurle gazteen topaketa

16:00 Sutegi Udal liburutegian.

Bitartekaria: Yolanda Arrieta.

Iraupena: ordu bete inguru.

Sormena partekatuz. Urtean zehar gazte(txo)en solasaldietan parte hartzen duten kideen topaketa; plana tentagarri iruditzen zaion edonori irekia.



EKAINAK 2, ASTEARTEA

Solasaldia Karmele Mitxelena "Zoriona, edo antzeko zerbaite" liburuaren bueltan

18:30 Sutegi Udal Liburutegian.

Bitartekaria: Alaine Agirre.

Iraupena: ordu eta laurden.

ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN EKINTZAK

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.



EKAINAK 10, ASTEAZKENA

Zumarte Txiki eta kantu teknikako ikasle gazteen kontzertua

18:30 Sutejiko auditoriumean.

EKAINAK 12, OSTIRALA

Musika eskolako talde instrumental txikien kontzertua

18:00 Zumarteko sarrerako plaza txoan.

EKAINAK 13, LARUNBATA

Talde instrumentalaren kontzertua

18:30 Frontoian.

EKAINAK 14, IGANDEA

Zumarte eta Altsasuko saxo taldeen kalejira

12:00 Artzabaldik abiatuta.

EKAINAK 17, ASTEAZKENA

Zumarte Gazte abesbatza eta Kantu Teknikako ikasleen kontzertua

18:30 Sutejiko auditoriumean.

EKAINAK 18, OSTEGUNA

Musika Txokoa, Musika Mintzaira eta instrumentuetako ikasleekin kalejira

17:30 Zumartetik abiatuta.

3

Asteazkena

18:00

Txiribogan

IV. Etumeta literatura lehiaketaren sari banaketa

Antolatzailea: Etumeta AEK Euskaltegia.

Sari-banaketa, Txiriboga tabernan izango da, eta bertan 4. edizioaren irabazlea zein den jakingo da. Bi aipamen ere izango dira, eta horien izenak ere bertan ezagutuko dira. Parte hartzaile guztiak, noski, gonbidatuta daude bertara, baita gainerako herritarrak ere.



7

Igandea

12:00 - 14:00

Dema plazan

Kultur azoka eta Arrobitxuloren aurkezpena

Antolatzailea: Arrobitxulo.

Usurbilgo kultur ekosistema ezagutzeko aukera. Herriko sortzaile eta kultur eragileen lanaren erakuslehoia.

Gainera, Arrobitxuloren proiektua zehatzago ezagutzeko aukera egongo da.

Azokan izango ditugu txalapartariak, bertsoariak, moda desfilea, musika zuzenean...



HITZALDI ZIKLOA: KOMUNITATETIK, HERIOTZAZ

Heriotza ardatz izango duen hitzaldi zikloa, saio bakoitzean alderdi jakin batean arreta jarrita: eskubideak eta erabakitze ahalmena, heriotza eta gaztetasuna, heriotzaren aurrean izan diren lekukotzak, literatura, kulturartekotasuna... Apiriletik azarora, zazpi saio izango dira.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

EKAINAK 11, OSTEGUNA

Zuzeneko podcasta: "Heriotzaren aurrean"

18:00 Sutejiko auditoriumean

Hizlariak: Eider Casanova, Eli Bergaretxe, Ana Jimenez eta Beñat Iraola.

Sarrera: doan. **Gonbidapenak:** usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Zer pasatzen da bat-batean zure aurrean egurrezko kutxa ikusten duzunean? Zer pasatzen da burutik minbizi hitza esaten dizutenean? Edo hobe esanda, metastasia ari direnean? Zuzeneko podcast honetan parte hartuko dutenek badakite zer den heriotzarekin aurrez aurre topatzea. Eider Casanova inurriaren gidaritzapean arituko dira Eli Bergaretxe, Ana Jimenez eta Beñat Iraola. Bakoitza bere lekutik, baina denak heriotzaz garden hitz egiten: oso gazte metastasia diagnostikatzen dizutenean, ume txikiak izanda zure heriotza gertu ikusten duzunean edo seme bezala amari agur esatea tokatzen zaizunean. Hori guztiaz eta askoz gehiagoz hitz egiteko aukera izango da, espazio seguru eta taburik gabeko honetan.



14

Igandea

10:00

Aginagako Eliza Zaharrean

Egurrezko ontzietan ondutako sagardoaren Euskal Herriko VII. txapelketa

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.

Aginagako Eliza Zaharra, Usurbilgo Udala eta Euskal Sagardoa. Usurbilen egingo dute Euskal Herriko Egurrezko Sagardo Txapelketa, egurrezko kupelean ondutako sagardorik onenak aukeratzeko.

Afizionatu mailan zein profesionalean aritzen diren sagardogileek parte hartu ahal izango dute, baldintza bakarrekin: egurrezko kupelean ondutako sagardoa izatea.

Epaimahaian adituak ez ezik, partaideek ere sagardoak dastatzeko aukera izango dute giro herrikoian.



9

Asteartea

19:00

Potxoenean

Elkar laguntza: buru osasunaren giltzarri

Antolatzailea: Agifes (Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta senideen Gipuzkoako Elkarte)

Hizlaria: Mikel Merino.

Elkar laguntzari eta buru osasunaren errehabilitazioari buruzko hitzaldia

Hitzaldiaren helburua buru-osasunaren errehabilitazio-prozesuetan berdinaren arteko laguntza duen garrantzia azaltzea da. Saioa herritar guztiei zuzenduta dago, eta elkar ulertzean, enpatian eta gertutasunean oinarritutako laguntzak pertsonen ongizatean izan dezakeen eragin positiboa azpimarratuko da.

Hitzaldia Mikel Merino elkar laguntzako agenteak eskainiko du. Bertan, buru-osasun arazoak bizi izan dituzten pertsonen beste batzuei laguntzeko duten papera azalduko du, baita itxaropena, ahalduz eta isolamenduari aurre egiteko tresnak ere. Agifesek urteak daramatza programa hau sustatzen, eta pertsona askoren errehabilitazioan lagungarria dela nabarmendu du.



13

Larunbata

12:00

Mikel Laboa plazatik

Ikasturteko azken kantu-jira, Amaia Zubiriaren inguruan

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Datorren ekainaren 13an, Kantujira berezia egingo dugu Amaia Zubiriaren abestien inguruan. Zubietako alabak euskal kantugintzari egindako ekarpen Itzela aitortu nahi dugu era honetan. Helburu horrekin kantu bilduma bat osatu dugu bere ibilbidean zehar abestutako kanta ezagunenekin.

Animatu parte hartzera!



13

Larunbata

18:00

Sutejiko auditoriumean

Antzerkia: "Quien ha matado a Verónica?"

BINAHI ANTZERKI TALDEA

Antolatzailea: Gure Pakea Zaharren Egoitza · Hizkuntza: gaztelania.

Emakume baten gorpua aurkitu dute hondartzan eta poliziak ikerketa egingo du, nola eta nor izan den jakiteko... zaila du jakiten nor izan den hiltzailea eta antzerkera datozen ikusleen laguntza beharko du kasua argitzeko.



14

Igandea

17:00

Artzabalen

Hil arte bizi! jaia

Hil arte bizi! bilduma berriaren aurkezpenarekin batera, murala margotuko da Artzabalen. Egun horretan 17:00etatik aurrera umeentzako eskulanak eta jolasak izango dira. Gure inurri baten liburuak ere aurkeztuko dugu, eguna, kontzertu akustiko batekin amaituz. Zatoz!

17:00-17:30 Liburu aurkezpena (Pauman, Inurriren lokalean).

17:00-19:00 Umeentzako eskulanak (Artzabalen).

18:00-20:00 Hil Arte Bizi bilduma berriaren aurkezpena eta azoka (Artzabalen).

19:00 Kontzertu akustikoa, Esanezin (Artzabalen).

19:00 Pizza-jatea (Ktxo pizzeriaren eskutik, Artzabalen).



16

Asteartea

18:30

Sutejiko auditoriumean

Liburu aurkezpena: Zuhaitzak eta Arbolak Euskal Herrian

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Argia aldizkaria.

Euskal Herriak zuhaitzekin eta zuhaitz espezie bakoitzarekin duen harremana jasotzen du liburua: zuhaitzen identifikazioa, ezaugarriak, beharrik, zaintza, erabilera, historia eta istorioak, esanahiak, bitxiak... Jakoba Errekondok, Markel Arriolabengoak, Iñaki Etxebestek eta Dani Blancok testuak eta argazkiak uztartu dituzte Argia aldizkariarekin argitaratutako liburuan. Usurbilgo Udalaren babesle-tza du. Egileak gurekin izango dira aurkezpenean.



6

Larunbata

19:00

Zubietako elizan

Jo! antzezlan

Antolatzailea: Zubietako Lantzen.

Sarrerak: 5 € usurbilkultura.eus bidez

Antzezleak: Beatriz Egizabal eta Anduriña Zurutuza.

Sorkun eta Grego lagun minak aspaldi ez dira elkarrekin egon. Zergatik? Kalean topo egin eta kirola egiten duten bitartean ikerketa antropologiko bat eskainiko digute. Erabiliiko duten metodologia bizitzako istorioak izango dira.



UDABERRI FESTA 2026 ZUBIETAN



Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

Non: Zubietako plazan.

EKAINAK 11, OSTEGUNA

16:45 Altxorraren bila, Ginkana eta Apar Festa.

EKAINAK 12, OSTIRALA

16:45 Haurren Funky-a eta antzerki emanaldia. Ondoren, haur nahiz helduen pintxo eta tortilla lehiaketa. Afalostean, *Zubietako Talentu bila!* eta bingoa.

17

Asteazkena

19:00

Mikel Laboa plazan

Santixabel jaien egitarauaren aurkezpena

Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzardea.

Uztailaren 1ean hasi eta 5an amaituko dira aurtengo Santixabel Jaiak.

Jai Batzardeak jaien aurkezpen herrikoia egingo du Mikel Laboa plazan.

Egitaraua: usurbilkultura.eus webgunean

